



UDALBATZARI

Donostiako Udalbatzak, 2017ko apirilaren 27an eginiko bilkuran, hasiera batean onartu zuen Udalak kudeatutako datu pertsonalen fitxategiak erregularizatzea (Ezabatzea).

2017ko ekainaren 8an, hasierako onarpenaren berri ematen zuen iragarkia argitaratu zen Udaleko Oharren Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta hala, jendaurrean jartzeko 30 eguneko epea hasi zen. Epe hori 2017ko uztailaren 20an bukatu zen, eta ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan xedaturikoarekin bat, egun horretatik aurrera hasierako onarpen erabakia behin betiko onartutzat jo daiteke eta, horren ondorioz, orain akordioaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

Halaber, eta zentzu horretan, Donostiako Udaleko Udalatzaren Araudi Organikoaren 113. artikuluak honako hau xedatzen du: "*alegaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordur arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko bilakatuko da, Tokiko Gobernu Batzarrak gertakari hori Idazkaritz Nagusiari jakinaraziko dio, eta azken horrek beharrezko gestioak egindo ditu Udalbatzari behin betiko onarpenaren berri emateko*".

Horiek horrela, Udalbatzari jakinarazi zaio behin betiko onartu direla Udalak kudeatutako datu pertsonalen fitxategiak erregularizatzea (Ezabatzea). Era berean, behin betiko onarpena emateko erabakia eta akordioaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua eman da, eta berri ematen zaio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

AL AYUNTAMIENTO PLENO

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 27 de abril de 2017 acordó aprobar inicialmente la regularización de ficheros de datos personales gestionados por la corporación municipal (Supresión).

El 8 de junio de 2017 se insertó en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento de Donostia y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa anuncio de la citada aprobación, iniciándose el plazo de información pública por 30 días. No consta que dentro de dicho plazo, que finalizó el 20 de julio de 2017, se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, a partir de esa fecha puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro del acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Asimismo, y en este mismo sentido, el art. 113 del Reglamento Orgánico del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián señala que "*en caso de que no se hubiera presentado reclamación o sugerencia se convierte en definitivo el acuerdo de aprobación hasta entonces provisional y que la Junta de Gobierno comunicará dicha circunstancia a la Secretaría General quien llevará a cabo las gestiones oportunas para dar cuenta de la aprobación definitiva al Pleno.*"

Por lo expuesto, se da cuenta al Excmo. Ayuntamiento Pleno de la aprobación definitiva de la regularización de ficheros de datos de carácter personal gestionados por la Corporación Municipal (Supresión), se dispone la publicación de este acuerdo de aprobación definitiva y de su texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y se notifica a la Agencia Vasca de Protección de Datos.

Donostia, 2017/08/30
LEHENDAKARITZA ZUZENDARIA

Edorta Azpiazu Laboa

LEHENDAKARITZAKO ETA GARDENTASUNEKO, GIZA BALIABIDEETAKO ETA BERRIKUNTZAKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Juan Ramón Viles Mitxelena